



Gure oihanetako
animaliak

10

Azalpenak eta oharrak

Ezagutzen ditugun animalia guziek (basurdea, oreina, orkatza, azeria, urtxintxa, huntza, zizarea, arkanbelea, barea, okil handia, uzkinaxoa, garrapoa, arrubia, basasagua, kukua...) landareekin eta zuhaitzekin batean, bioaniztasuna osatzen dute. Oihaneko animalien bizimoldeari eta haien hatzen ezagutzeari interesatuko gara. Landaredia bezala, animalia horiek oihaneko estai guzietan kausitzen dira.

Hauirengandik entzun daitezkeen galdeak

Oihu bat, orro bat, kantu bat entzun da oihanetik ? Zein animaliaarena ote da ?
Oihanean animalia batzuen hatzak atzeman ditugu... Zeinenak ote dira ?
Basabere bat atzeman dugu hilik oihanbide batean. Ez dakigu zer den...

Jarduera batzuk

Oihanetako animaliei buruzko dokumentazio bilketa antolatu (taulak, ilustrazioak, prentsa-artikuluak...).
Irizpide biologikoen araberrako sailkapenak egin.
Oihaneko ibilaldia. Helburua : oihaneko azantzak zinta batean grabatu (Baztan ibarreko Bertiz parkearen bisita arras egokia da).
Zintaren ustiapena egin, ikasgelan eta animalien orro eta kantuak identifikatu.
Animalien ezaugarri-fitxak sortu informazioak antolatuz.
Animalien oinatzak bildu eta atxiki moldearen teknika baliatuz.
Animalien jantegiak edo xori ohantzeak eraiki neguko.

Ikasiaren finkatzeko jarduerak

Lanen bildumak egin, eskema, horma-irudi, argazkiak... baliatuz.
Komunikazioa landu ahozko edo idatzizko azalpenak eginez : talde batek besteari ; ikasgelak beste ikasgela bati.
Ikasle bakoitzak ikasi dituenak kaieretan idatz.

**10/1****10/2****10/3****10/4**


ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Paisaia baten plano irudikapena irakurri.
Notizia edo muntaia fitxa baten irakurtzen eta ulertzen ikasi.
Inguruko animaliak identifikatu.
Behaketa baten ondorioen antolatzen ikasi.

Haritzaren egoiliarrak

Haritz handi eta zahar batek 500 animalia edo landare espezie babes ditzake bere baitan.






Oihaneko animalia xeheak

Deskonposatzaileak


(landare porroskak eta egur ustela janez bizi dira)



oihaneko zizarea





zokozorria



iula



Glomerisoa



oihaneko kilker tipia



kaprikornio handia

Belarjaleak

(landareak jaten dituzte)




barea




oihaneko barraskiloa

Harrapariak


(beste animaliak harrapatuz bizi direnak)



litobia



armiarma




karaboa



igel zalua



ustezko eskorpioia



harrulia

Oihaneko animalia larriak



© MIFEN/De Joantho

Oreina

Erran ohi da oreina oihaneko erregea dela. Egia erran, daukan maiestatea eta indarra ikusiz, horrelako fama ez du batere ebatsia.

Kasik urte guzian, arrak emeatatik bazter egoten dira. Emeak beren umeekin eta ar gazteekin taldean bizi dira.

Oreinararen garaian ("maitaldia"), larrazkenean, ar helduak emetara hurbiltzen dira haien estaltzeko.

Orro eginez, arra saiatzen da ahal bezainbat emeren biltzera bere ingurura. Arrak adarka borrokatzen dira baina gudaldi horiek ez dira hiltzerainokoak izaten.

Adarrak hezurrezkoak dituzte eta urtero erortzen zaizkie, otsailean edo martxoan. Erori orduko berriz heldu dira. Luzatzen ari direnean, "balusa" izeneko tela edo mintz mehe batez estaltzen dira. Odolzainez hornitua da tela. Adarrak gorenera heltzen direnean, odola ez da gehiago telan kurritzen eta orduan tela idortzen da eta erortzen. Oreina zuhaitz enbor edo adar baten kontra arraska ariko da azal hori galdu nahian.

Udaberrian, emea tropatik baztertzen da oreinkumearen erditzeko.

Oreinak belarjaleak dira. Belarra, hostoak, zuhaitz-azalak, ezkurak jaten dituzte. Neguan zuhaitzen erroak jaten dituzte, beharrez elurrak estali lurzorua karrakatuz. Iratiko oihanean ikus daitezke, Landetako itsas-pinudi zabaletan ere bai.

Orkatza

Oreinarene eite du baina tipiagoa da. Euskal Herrian franko aurkitzen da. Ez da oreina bezainbat eremu gose. Oihanak eta pentzeak laket lekuak ditu, bai eta konifero eta hostodun oihan handiak ere. Ipurdian duen tatxa xuritik aise ezagutzen da orkatza. Tatxa hori oraino ageriago du bere burua lanjerean sentitzen duelarik. Orduan zakurraren ihausiak bezalako hots azkarrak eta ozenak egiten ditu eta jauzika ihes egiten. Ihesi doan gibelalde zuriak lagunak abisatzen ditu.

Orkatz arrak adar tipi eta zuzenak ditu. Adar konkordunak dira oinean eta tela batez estaliak udaberrian. Tela urrian edo azaroan galtzen du.

Orkatza uztailean edo agorrian ugaltzen da.

Emeak urtean ume bat edo bi ditu. Bakarrik uzten ditu gune batean eta bera alhatzera joaten da. Sekula gertatzen bazaizu horrelako ume baten aurkitzea udaberrian, belarren artean, ez hunki, otoi ! Ama ez duke urrun ; bere umeari jendearen usaina usnatuz geroz, abandonatuko luke.

Orkatza zuhaitzetako eta zuhaixketako hostoak, onddoak, fruituak eta baiak janez bizi da.



© MIFEN



© A. Elozegi

Azeria

Egunez oihanean gorderik egoten bada ere, gaur egun azeria kasik non nahi ikus daiteke, ingurune naturaletan baina berdin hirietan ere, zakarrontzien miatzen ari.

Frantzia ipar-ekialdean, *errabia* deitzen den eritasunaren kutsatzaile da. Gure lurraldeetan aldiz ez dute azeriek errabiarik.

Oihanean, azeriak bere tegia zulo batean egiten du, zuhaitzaren oinean, erroen artean. Urtero, apirilean sei azeri-kume sorten dira.

Elikadura anitza du azeriak : basasaguak, untxi-

kumeak, intsektuak janez bizi da. Udan fruitu basak ere jaten ditu.

Azeriaren oinatzak zakurrarenen eitekoak dira baina finagoak eta hertsiagoak.



© MIFEN/De Joanitho

Basurdea

Azeria bezala, basurdea ere gure oihanetako basabere arrunta dugu. Baina arras diskretua da ; ongi gordetzen badaki. Oihanean bizi da, bai eta pentzei eta alorrei hurbil, eta kasik beti taldean. Ar zaharrak aldiz bakartiak dira.

Gauaz, basurdeak biziki urrun joan daitezke janarika (40 km-raino). Lurra musurkatzen dute beren mutur luze eta indartsuarekin. Arrak letagin handiak baliatzen ditu erroen eta harrien mugitzeko. Gisa horretan, utzi dituzten aztarnetatik ezagun da non ibili diren basurdeak.

Egunaz leku lohitsuak, sasipean edo iratzean pausatzen dira.

Orotarik jaten du : orojalea da basurdea. Sasoi arabera janaria aldatzen du : bihiak, fruitu gorriak... udan; onddoak, ezkurak, gaztainak eta pagotxak larrazkenean ; urte guzian erroak, zizareak eta intsektuen harrak lurpetik ateratzen ditu. Frantzia Hego-Mendebaldean, arto alorretan ere sartzen da makur handiak eginez.

Urdeari bezala, denbora beroa denean edo garbitu nahi duenean, ihaloskatzea laket zaio, berak muturrez osatu baltsa leku edo istiletan.

Indar handiko animalia da basurdea: sasi arantzatsuetan eta trinkoenetan sartzen da batere oztoporik gabe. Bere buruaren gerizatze, jendeari asaldatzen zaio. Ez idurian, lasterkari zalua eta iraunkorra da.

Urtero primaderan, basa-urdangak zortzi kumetarainoko umaldiak ditu. Lahar eta sasi trinkoetan, ongi gorderik apailatzen du oiantzea.



© J.R. Aihartza

Urtxintxa

Zuhaitzak baitezpadakoak ditu eta beraz oihandi hostodun eta orrazdunetan aurki daiteke, bai eta oihan tipietan eta berdin hirietako parkeetan ere.

Lurrera jausten da zenbait ezkur eta pinabururen biltzeko. Bestela, denbora guztia zuhaitzaren abarduran dago. Urtxintxa biziki zalua da : adarrez-adar alde guztietara ibil daiteke lauzpabost metroko jauziak eginez. Aztapar luzeei esker eta buztan harroa orekatzaile gisa erabiliz, akrobazia harrigarrien egiteko gai da.

Baina kasu lepahoriari, halaber pitotxari, urubi arruntari, arrano zuriari edo berdin aztoreari ! Zalua izanagatik, urtxintxak ezin du beti ihes egin.

Neguan urtxintxa ez da lokartzen. Nahiz eta anitz lo egin, ernea da. Bere habia abardura batean du, adaki idorrez, egur azalez, hostoz egina eta zola goroldioz ihaurria.

Habi horretan hiruzpalau kume, seiataraino berdin, sortzen dira urtero, primaderan edo udan.

Urtxintxak ezkurak, pagotxak, hurrak, zuhaitzetako begiak edo muskilak, onddoak, intsektuak eta arroltzeak jenez bizi da. Janaria nasaia denean gertatzen zaio erreserben egitea zorupean baina, gaixoa, "xoriburua" da eta maiz janaria non gordea duen ahantzia du. Guzien buruan oihanarentzat probetxu: lurpean ahantzi dituen bihiak hozituko dira eta zuhaitz gazteak sortuko dituzte.



© MIFEN/De Joantho

Garrapoa

Oihaneko xori eder honi aise ohar gaitzke beti jauzika baitabil zuhaitz enborretan. Okila baino tipiagoa, arinagoa eta zaluago da eta beste xoriek ezin hartuzko jarrera anitz baditu : zuhaitzaren enborrean gainetik abiatu eta behereraino, buruz beheiti jausten da !

Enborren azalaren arteketan gorderik dauden intsektuak eta haien arroltzeen edo harren (larben) bila ibiltzen da. Larrazkenean, fruituak (hurrak, ezkurak...) biltzen ditu eta azalaren arrailduretan gordetzen. Enborrari loturik, moko ukaldi azkarrak emanez fruituari, irekitzen du eta barneko bihia jaten.

Udaberrian beren lur eremuari jarraikiak dira garrapoak eta etsaiak ez dituzte aise jasaten. Xori arrotz bat hurbilduz geroztaztaparka eta pikoka ariko dira biak.

Arrabio arrunta (harrulia)



© M.M. Elosegi

Arrabio arrunta edo harrulia anfibioa da ; larrua beltza du baina tatxa horiz emokatua. Buztana zilindrikoa, nahiz eta uhandrek (tritons) talotua izan. Oihan hostodunetan eta mistoetan bizi da eta beti ur bazterretan (iturriak, aintzirak, urmaelak, istilak). Hots, oihanetako lurzoru hezeak gustatzen zaizkio. Egunez lurzoruko egur eta goroldioetan edo berdin hostopean gordetzen da. Gautarra da harrulia : preziatzen dituen bareen eta zizareen ihizi ibilki da gauaz.

Harruliek ez dute igelen eta apoen gisa kantatzen. Amodiozko dantza errituala egiten dute, aldiz, batek bestea estaltzean.

Bien arteko kopulazioa (estaltzea) larrazkenean iragan eta, harruli emeak harrak edo larbak iturri edo ur-istil batean ezartzen ditu negu amaieran. Zakatzak galtzen dituztenean, harrak ordukotzat helduak dira eta lurrean edo lehorrean bizi daitezke.

Harruliek negutzen dute. Oihanean gordetzen dira eta metabolismoa emekiago ibiltzen zaie. Ihizin ari direnean, harrapakina elbarritzen dute jendeentzat arriskurik gabe den pozoiz batez.

Azkona



© MIFEN/De Joantho

Buru zuria bi zirrista beltzekin bazterretan, azkona aise ezagutzen da. Bizkitartean ez da usu ikusten animalia gautarra delako.

Azkonari sasitzeak eta zuhaiztiak gustatzen zaizkio. Eguna gorderik pasatzen du lurpean egin zilo edo gordeleku batean. Azkon-ziloak egiazko labirintoak dira gela nagusi bat erdigunean eta gaineratik gelak inguruan, estai guzietan, tunel batek elkarloturik.

Udazkenean, azkonak hostoak eta goroldioa biltzen ditu gela nagusiaren ihautzeko. Gela horretan negua iraganen du. Tegiaren sartze-aitzinean, galerietan gaindi doan arroila tipi bat bada. Horretarik bereizten da azeri-zilotik.

Basurdearen eta azeriaren gisara, elikadura anitza du azkonak : basasaguak, zizareak, satorrak, sagarroiak jangai arruntak ditu baina erroak, fruituak, intsektu larbak, arroltzeak, eta zenbait aldiz sugedorriak ere jaten ditu.

Sortzen dituen kalteengatik, azkona ehizatzen da zilotik ateraraziz. Bere buruaren gerizatzeke arma sekretu eta eraginkorra badu azkonak: urrina. Arriskuan delarik, buztanaren azpian daukan sabi batetik urrin gaiztoa hedatzen du bere inguruan, etsaiaren kasatzeko edo ohiltzeko.



© MIFEN/ De Joantho

Hontz ertaina

Hontza ertaina hegazti harrapari gautarra dugu. Harrigarritzko begi laranja koloreak dauzka eta luma mototsak begien bi aldeetan. Konifero zaharretan bizi da gehienetan baina oihan hostodunetan, sasitzetan ere, ordokietan, halaber mendian.

Hontza ertaina diskretua da eta egunez gorderik dago hostaila trinkoetan edo enbor baten kontra luze-luzea emanik.

Neguan eta larrazkenean elkarretaratzen dira troparendako apailatu eguargi-logelan.

Habia, pika edo bela beltzarenean egiten du.

Hegaldia pisua du hegazti honek eta zuzen-zuzena bere xedera buruz doa. Mikro-ugaztunak janez bizi da. Gazteek kulunka herdoilduaren antzeko oihua egiten dute.

Basasagua



© A. Elozegi

Oihanetako sagua da; animalia guziz arrunta gure eskualdeetan. Bizkitartean, sasitze eta hirietako parke eta baratzeetan ere aurki daiteke. Lursaguak ez bezala, begi handiak, mutur zorrotza eta buztan luzea ditu.

Gibleko hatzei esker, jauzi handiak egin ditzake ihes doalarik.

Kasik egun guztia bere ziloan iragaiten du. Basasaguaren tegiak bizpahiru sartze badauzka. Zenbait aldiz sator-zilotzat hartzen ditugu.

Bere barnetarik bat edo beste bihitegi gisa baliatzen ditu.

Gordelekutik gauez ateratzen da, janari bila, baina orduan urubi arruntak edo hontza ertainak jateko arriskuan dabil. Beharrik hegazti harrapari horiek hor direla, bestela basasagu ihaurri genuke. Erran behar da urtean bizpahiru umaldi badituela basasaguak, aldian zazpi umerainokoak.

Basasaguak pinaburuetan, hurretan, ezkurretan edo pagotxetan dauden hazi franko jaten du ; intsektuak eta barraskiloak ere bai. Haren aztarnak oihanean ikus daitezke (zilo, hur, pinaburu hondar...).

Oihaneko animalien oinatzak eta indizeak

Oinatzak



basurdea



azkona



zakurra



azeria

Fruitu hondarrak



urtxintxa



basasagua



garrapoa

Ongarriak



basasagua



urtxintxa



orkatza



oreina

Beste indize batzuk



cynips listafinari
dagokion
haritzaren kuskula



basasaguak karruskatu
pinaburua



urtxintxak karruskatu
pinaburua